



ARAUTEGIA 2024

FUTBOL 11 (Errendimendurako ibilbidea)

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futboleko Federazioarekin lankidetzan, Euskadiko Eskolarteko XLI Kirol Jokoen baitan, ERRENDIMENDUKO IBILNBIDEKO EUSKADIKO ESKOLARTEKO FUTBOL 11 TXAPELKETAK antolatuko ditu, Infantil lehen urteko txapelketa Zubietan (Gipuzkoa), eta Infantil bigarren mailako txapelketa Lezaman (Bizkaia), biak ekainaren 1 eta 2ean.

Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Hiru bat sistemaren bidez bi jardunalditan jokatuko da.

Kategoria bakoitzeko adinak honako hauek izango dira:

Infantil lehen urtekoa: 2011 jaiotako jokalaririk.

Infantil bigarren irtekoa: 2010an jaiotako jokalaririk. Kategoria honetan beheragoko adineko jokalariren parte-hartzea baimentzen da (2011).

2. EKIPOEN OSAKETA

Lurralde bakoitzeko hiru talde parte hartuko dute beraien lurraldeetako txapelketen lehen irabazleak.

Taldeak gehienez 25 jokalariz osatuta izango dira, hauez gain, delegatu bat eta entrenatzailea izan daitezke.

Aktan gehienez 22 eta 14 gutxienez jokalaririk agertuko dira.

Talde batek gutxienez 14 jokalaririk aurkezten ez baldin baditu, partida berdina jokatuko da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariak, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariak emango dion fitxa bete



beharko du. Adostasuna eman ez gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du partidari parte hartu.

Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko arduradunari alde aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalariren zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 2 – 0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Parte hartzen duten taldeen osaera Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokoetarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalariren parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko saihesteko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.

Partida bakoitzean, aktan izena emandako partaide guztiak zati bat gutxienez jokatu beharko dute, salbuespenak hauek izanik:

- Lesionatutako jokalaria. Jokalari batek asistentzia jasotzen badu ordezkatzeko beharrik ez dago, baldin joko bi minutu baino gehiagotan gelditzen ez bada.



- Kanporatutako jokalaria

Behin aipatutako aldaketak egin eta gero, aldaketak askeak izango dira.

3. PARTIDUAREN IRAUPENA

Partidek hogeita hamabost minutuko iraupenak izango dute. 17,5eko bi zatitan banatuta, bost minutuko atsedenaaldi batekin.

4. BERDINKETEN AURREAN

Penalti-puntutik hiru jaurtiketako txanda bat egingo du talde bakoitzak, penaltia botatzeko bi taldeetako jokalaria txandakatuz. Hiru jaurtiketak egin ostean berdinketa badago, penaltiak jaurtitzen jarraituko dute talde batek hutsegin eta besteak sartu arte.

Jardunaldi bakoitzean lortutako emaitzak egun bereko sailkapena sortzeko baliagarriak izango dira, inoiz ez dira jardunaldi bien emaitzak batuko sailkapen orokorra osatzeko.

Jardunaldiko sailkapena zehazteko irizpide hauek jarraituko dira:

Bi talderen arteko berdinketa ematen denean:

- 4.1.- Jokatutako bi taldeen arteko emaitzen arabera
- 4.2.- Berdindutako taldeen arteko penalti jaurtiketen emaitzaren arabera

Hiru talderen arteko berdinketa ematen denean:

- 4.3.- Jardunaldi berean, egindako eta jasotako gol kopuru handiaren diferentziaz.
- 4.4.- Jardunaldi berean, sartutako gol gehien sartutako kopuruaren arabera.
- 4.5.- Jardunaldi berean, penaltietako gol ezberdintasunagatik.
- 4.6.- Jardunaldi berean, jaurtitako penalti kopuru gutxienagatik.
- 4.7.- Zozketaren bidez.

5. BALOIA

Baloia 5. motakoa izango da. Berotzeko balioak taldeak ekarri beharko dituzte.

6. FUTBOL ZELAIA



Zelai jokoak programatan azaldutakoaren arabera izango dira.

7. ZIGORRAK

Txartel horien metaketaren ondorioz egozpenaren aurrean:

- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, honek jokatzeko duen hurrengo partidari.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da partida irauten duen bitartean.
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango dute taldeak jokatzeko duen hurrengo partidari.

Txartel gorri zuzena ematen denean:

- Egotzitako jokalaria ezin izango du bere taldearekin lehiatu, txapelketa guztian zehar.
- Bere taldea jokalaria bat gutxiagorekin geratuko da eguneko jardunaldia irauten duen bitartean (egun berean jokatzeko diren partida guztiak hartzen dira jardunalditzat).
- Egotzitako jokalaria ordezkatu ahal izango da, taldeak jokatzeko duen hurrengo eguneko partidatarako.

8. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira:

Garaikur bana lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutako ekipoei.

9. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharririk sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

10. AZKEN OHARRA



Arautegi honetan azaltzen ez diren kontu guztietarako, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzkoa
- d. AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 16koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e. EBAZPENA, 2024ko urtarrilaren 25ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2024ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLI edizioeko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f. Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.